



■ PORTU-ELIZATXO
20 minutuko etenak, errepidean
Gaur jarriko dira martxan Portu eta Elizatxo arteko trafikoa eta mugikortasun arazoak konpontzeko, Udalak eta auzotarrek hartutako neurriak; errepidea moztuko da, 08:45-09:05, eta 16:15-16:35, Portuko Shangai paretik Leokako labaderoraino. Bizilagunek pasatzeko aukera izango dute, baina horretarako txartela eskatu behar dute Udaleko HHZn. ■

■ ERRUGBIA OHOREZKO MAILA

Zelaian eta harmailetan estututa ere, galdu

Jokoan ezer ez bazuen ere, Hernani ez da sekula amore emateko prest egoten. Ordizia gogotsu estutzen saiatu zen atzo Anoetan, baina 12 eta 39 galdu zuen. Gaur, Perlan izango dira, indartzen.

ASTE honetan Landare ur azpian geratu bada ere, horrek ez ditu zaleen animoak eta jokalariren indarrak ito. Atzo, Ordiziaren kontrako derbia Anoetako miniestadioan jokatu behar izan zuen Hernanik. Estutzen saiatu arren, ordea, Ordizia gehiago izan zen; 12 eta 39.

Indarrak galtzen

Partidua hasterako, zalez beteta zeuden harmailak, Anoetan. Ordiziakoak ez ziren gutxi, baina ezta Hernanikoak ere.

Indar hori baliatuta, azkar iritsi zen partiduko aurreneko entsegu. Ordiziarentzat izan zen. Baina berehala erantzun zuen Hernanik; 13garren minutuan berdinketa lortu zuen Jon Ander Puertasek. Atsedendia-aren aurretik, ordea, beste entsegu bat, eta hura transformatzea lortu zuen Ordiziak (5-12), eta, segidan, ikaragarritzko lasterketan egin ondoren, marra pasatzea

lortu zuen Hernaniko Oier Garmendiak; baina epaileak balio gabetu egin zuen, eta txartel horia atera, baloia ukitu zuelako, Ordiziak atera zuenean.

Atsedenditik bueltan, bizi hasi zen Ordizia, eta eta 58garren minuturako, bi entsegu eta transformazio bat lortuta zegoen; txartel horiren bat tarteko. Amore eman gabe estutzen segi zuen Hernanik, eta Luke Courzaten entsegu eta Anartz Elosegiren transformazioarekin, 12-24 jarri zuen markagailua. Indarrak ahuldu zitzaizkion pixkanaka, ordea, eta gainerako puntuak Ordiziak bildu zituen; 12-39.

Errekuperazioa, Perlan

Hurrengo erronketan jarria dauka burua orain, Hernanik: jaitsiera saihesteko play offa eta Europako Sevens Txapelketa. Perlako itsas uretan hasiko du gaur, errekkuperazioa. ■



Ziztuan alde eginda lortu zuen Hernanik, aurreneko entsegu.

■ DAITEKE

Ordutegia, berrituta

Daiteke, enplegurako aholkularitza zerbitzua, Lanbideko zentro laguntzailea da orain, eta ordutegi berria dauka gaurtik: astelehenetik ostegunera 09:00-17:00 eta ostiralean, 15:00ak arte (Gabriel Zelaian). ■

■ ETXEBERRI

Danborradarako entsaioak, gaurtik

Mendekoste jaietan eta San Joanetan haur eta helduen danborradak ateratzeko asmoa daukate aurten ere Etxeberri auzoan, eta gaur hasiko dituzte entsaioak. Hurrek, 18:30-19:30 eta helduek, 19:30-20:30. Astelehenetik ostegunera egingo dira. ■

■ SAN JOANAK

Bilera, Biterin

San Joanak antolatzeke bigarren bilera deitu du gaur, 19:00etan Biterin. ■

■ SAGAR MOREAK

Txartelak, afari feministarako

Afari feminista egingo du Sagar Moreak-ek larunbatean, eta txartelak asteazkenean arte izango dira salgai Kide eta Garinen. ■

■ HITZALDIA

Euskera eta Sardinia, ahotan

Hitzaldia antolatu dute Doberak eta Hernani Errotzenek asteazkenearako; *Euskararen aztarnak Sardinian?* Juan Martin Elepuruk emango du, 19:00etan Biterin. ■

■ TILOSA 7 PASA

Eguraldiaren eraginez, partidua ositrallean ere

Aurrera egiten ari da Tilos 7 Pasa pala txapelketa herrikoia. Ligaxkako partidua gehiago jokatuko dira aste honetan, ohi bezala, baina oraino, ostiralean ere jokatuko dira partidua.

TILOS 7 Pasa pala txapelketa herrikoieko ligaxkako beste launa partidua jokatuko dira aste honetan, ohi bezala, astelehenetik ostegunera, arratsaldeko 18:00etan hasita.

Baina lehengo astean botatuko euriak eraginda, partidua batzuk bertan behera utzi behar izan ziren, eta horiek errekkuperatzeko, ostiral honetan ere izango da lehiarik, 17:30etan hasita. ■

Apirilak 16

18:00 Del Horno-Unda/Gereñu-Arroniz

18:45 Urio-Elizalde/Ferreiro-Juarez

19:30 Pavon-Etxaniz/Iraola-Agirre

20:15 Rekondo-Gomez/Magi-Txema

Apirilak 17

18:00 Bengoetxea-

Izquierdo/Lizasoain-Otaegi

18:45 Teje-Jonha/Etxeberria-Loidi

19:30 Mendizabal-Etxeberria/

Popin-Txetxo

20:15 Luluaga-Zelaia/Dani-Ekhi

Apirilak 18

18:00 Del Horno-Unda/Iriarte-Gamio

18:45 Oiaga-Zubeldia/Galdos-Elizazu

19:30 Urien-Otaegi/Alaitz-Idoia

20:15 Audikana-Seco/Larreategi-Elizari

Apirilak 19

18:00 Teje-Jonha/Zubliaga-Lujanbio

18:45 Mitxelena-Izkue/Ekhiñe-Garazi

19:30 Arregi-Manterola/Arana-Berebide

20:15 Salaberria-

Zubimendi/Legarreta-Legarreta

Apirilak 20

17:30 Manterola-Arandia/Xabi-Jon

18:15 Azaldegi-Aranburu/

Zubimendi-Ruiz

19:00 Iparragirre-

Marin/Maneiro-Aizkorreta

19:45 Ruiz-Arluziaga/Aroztegi-

Aroztegi



ASILLIENLIK OSTIRAL FRA

7:30 - 13:00

15:15 - 19:00

LARUNBATEAN

9:00 - 13:00

943 55 21 31

ANDRE KALEA, 45

HERNANI

50 URTE BAINO GEHIAGO ZUEKIN! AHOIKULARITZA PROFESIONALA.

Dekoraziorako eta industriadako pinturak
Mota guztietako zoru-pinturak
Fotografiaren preskripzio teknika (10 arteko garatua)
Aholkularitza teknika
Kolore berdintzeetan espezialistak
Mota guztietako zoru salmenta eta jartzea
3000 erreferentziatilik gora pisu-pinturatan
Biniak
Sgrayer ontziraketa
Etxeaz etxeko zerbitzua





☎ TAXIAK: 943 550093 | UDALTAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroea Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
✚ / Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 / Gaeuz: Castilla Urbieta, 7 (Hernani) 943 552941

EGURALDIA	GAUR	Goizean euria egingo du, sarri, baina pixkanaka atertzera egingo du, eta ertaingu-neak zabalduko dira zeruan. Haizea ere, pixkanaka hegoaldeko finkatuko da, orduan. Min.9° / Max.16°	BIHAR	Giro eguzkitsua espero da, eta tenperatura atsegina. Hego-haizea ibiliko da eta epeldu egingo du. Zeruan, eguzkia jaun eta jabe. Min.9° / Max.22°

XXIII. DANTZARI FESTA

Euskal Herriko dantzarien biltoki izango da berriro ere, Hernani

Euskal jantzien erakusketarekin, gaur bertan, emango zaio hasiera aurten ere Dantzari Festari. Dantzariak, berriro, asteburuan etorriko dira.

SAN Joan Konpartsak antolatuta, aurten ere iritsi da Euskal Herri osoko dantzariak Hernanin elkartzeko astea.

Gaur bertan emango zaio hasiera XXIII. Dantzari Festari, Biterin jarriko den erakusketarekin; gaurtik ostiralera, euskal jantziak ikusi ahal izango dira, 17:00etatik 20:00etara.

Era berean, Iraultza dantza taldeko Ramon Garciak jantzien inguruko hitzaldia eman-

go du ostegunean, 19:00etan Biterin. Aurtengoan, baserritarren eta kalekumeen janzkerak izango ditu aztergai.

Dantzariak, asteburuan

Dantzarako unea, berriro, asteburuan iritsiko da. Batetik, larunbatean, dantzari txikiak aterako dira kalera. Eguerdiko 12:00etan Ttarlak egingo du buelta, eta 17:00etan hasita emanaldia izango da Ttarla

eta beste 8 talderen eskutik: Astiger, Begiraleak, Egape, Ereintza, Eskola, Hautzaro, Ibarla-Meaka eta Trebeska.

Bestetik, igandean, zazpi probintziatako dantzariak elkartuko dira herrian. Goizeko 11:00k aldera auzoetan barrena ibiliko dira, eta 13:15etan plazan egingo dute ekitaldi nagusia. Bazkari, omenaldi eta erromeriarekin borobilduko dute eguna. ||

UDALA

Energia kontsumoan aurrezteko, tailerra

Etxebizitza, enpresa edota merkataritza lokaletako elektrizitate kontsumoa ezagutu eta nola aurreztu ikasteko tailerra antolatu du Udalak doan, Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetarako Departamentuarekin elkarlanean, Gipuzkoa Argitu programaren barruan. Tailerra, maiatzaren 10ean emango da, 11:00etan Biteriko KZ Gunean. Doan da, baina maiatzaren 4a baino lehen izena eman behar da: m-aldaia@hernani.eus / 688 84 17 74. ||

Diru-laguntza deialdiak zabalik, kultur eta auzo elkar-teentzako

Maiatzaren 3ra arte irekita dago epea, kultur jarduerak antolatzeko eta auzo elkarteei bideratutako diru-laguntzak eskatzeko. Biak Udaleko Kultura sailak kudeatuko ditu. Auzo elkarteei dagokienez, Auzo Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuta egon behar dute elkar-teek, baina kultur jarduerari dagokienez, antolatzaileak Hernanikoak ez izanda ere, jarduera Hernanin egiten den kasuetan diru-laguntza jaso ahal izango da. Oinarriak ikusi eta eskaerak egiteko, HHZ zerbitzura jo daiteke, astelehenetik ostiralera, 08:00-19:00 eta hileko 1go eta 3garren larunbatetan, 10:00-13:00. ||

JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefona. ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Portu-Elizatzxo-Osiñaga Mugikortasun Plana

Udalak aurkeztu berri du Portu-Elizatzxo-Osiñaga auzoei dagokien Mugikortasun plana. Bertako espazio publikoa eta bizilagunen mugikortasuna hobetzeko hiru urteko plana da. Lehen neurria, Oinndi kaleko trafikoa 20 minutuz etetearena da, eskolako sarrera eta irteera orduetan. Bizilagunek txartel bat erabili beharko dugu eten-dura orduetan kotxearekin auzotik sartu/ateratzeko.

Ez nago ados planarekin eta horrela azaldu nuen antolatutako hiru bileretan, non argi geratu zen, arazo larrienetariko auzo sarreratan gaizki aparkatutako autoek sortzen dutela. Lehen pausoa hori soluzionatzea zela esan bazuten ere, egun berdin jarraitzen dugu. Nola da posible kastigu eremu desberdinak sortzea araudi bereko herri batean?

Koro Etxebarria eta Andoni Pikabearekin bildu nintzen, besteak beste, Portu auzoko sarrera kotxez gainezka izaten dela salatzen. Horrek arazoak sortzen ditu, betez ere ikastola orduetan. Jasotako erantzuna: «... Gaizki aparkatutako kotxez gainezka egotearen arazo beste bat da eta, agian zuk diozun bezala da, baina normalean kekak beste aldetik etortzen dira; aparka-

tzeko lekuri ez dagoelako eta horrek ere ez dauka soluzio erreza...» Eta hala bada, ez al da gure Udalaren eginkizuna kotxeak behar bezala aparkatzeko lekuak sortzea?

Martxoak 21eko Kronikan guraso talde batek publikatua: «Ez da juxtua, arazoa konpontzeko aurreneko neurria izatea gurasoei kotxean pasatzea debekatzea».

Zuek sorturiko arazo jorratuko zen bileretara ez zarete agertu. Ez al zenuten ikastola pare horretan zer edo zer gaizki zebilelako inongo susmorik? Eguero ikastolako ateraino kotxez joan, gaizki aparkatu eta haurra gelaraino eraman nahi duzuenok, pibote tartean aparkatzen jarraitzen duzuenok, benetan ez zenuela nabari arazoa?

Aipatzen duzuen "kontziliazio familiarra-laborala" gauza bat da, eta guraso-lan-gile izateagatik ikastolako ateraino kotxea eramateko ohitura, beste bat!

Arren ez aitzakiatzat erabili mugikortasun arazoak dituzten haurrak, noski ikastolaraino eraman ahal izango direla eta!

Gaur hasiko da Udalak inposatutako planaren lehen fasea; benetako arazo, gorriz margotutako guneeekin estali asmoz, biba zuek!

Esti Urrestilla Landa



Sevillan izan da Kantuz abesbatza, bertako Merkataritza Zirkuluaren kasetan.

KANUTZ ABESBATZA

Mantzanilla bezain freskagarri Kantuz, Sevillan

Sevillako Apirilko Feria gaur hasiko da, baina lehendik ere prestaketa lanetan murgilduta, festa giroa nabaria izan da, eta bertan izan da Kantuz abesbatza, Sevillako Merkataritza eta Industria Zirkuluaren ospakizunean. Erakunde honek 150 urte bete ditu, eta sekula baino modu bereziagoan ospatuko du Apirilko Feria. Bertan jartzen duen kaseta Feriako zaharretakoa da; 1870ean jarri zen, dagoeneko. Horregatik, egunak dira hainbat ekitaldi antolatzen ari dela, eta Kantuzek kontzertua eman du bertan. ||

KIROL TABLA

ESPANIA		EGUR PELOTA - GRANTIA semeen	
Rak. Osoa/Leizaola	Hernani Odoiz	12-20	Mazpeltak
Rak. Euzko/Leizaola	Odoiz/Bermejo	02-20	21 talde txiki, 13 talde txiki
Rak. Osoa/Leizaola	Hernani Odoiz/Leizaola	12-21	21 talde txiki, 13 talde txiki
Rak. Osoa/Leizaola	Urola/Leizaola	02-18	
FUTBOLA		EGUR PELOTA - TRAPUEKATU OFIZIALEK	
Rak. Osoa/Leizaola	Hernani Odoiz	12-20	Mazpeltak
Rak. Osoa/Leizaola	Odoiz/Bermejo	02-20	21 talde txiki, 13 talde txiki
Rak. Osoa/Leizaola	Hernani Odoiz/Leizaola	12-21	21 talde txiki, 13 talde txiki
Rak. Osoa/Leizaola	Urola/Leizaola	02-18	
BASQUETBOLA		EGUR PELOTA - TRAPUEKATU PRIVATUEK	
Rak. Osoa/Leizaola	Hernani Odoiz	12-20	Mazpeltak
Rak. Osoa/Leizaola	Odoiz/Bermejo	02-20	21 talde txiki, 13 talde txiki
Rak. Osoa/Leizaola	Hernani Odoiz/Leizaola	12-21	21 talde txiki, 13 talde txiki
Rak. Osoa/Leizaola	Urola/Leizaola	02-18	
BASKETBOLA		EGUR PELOTA - TRAPUEKATU PRIVATUEK	
Rak. Osoa/Leizaola	Hernani Odoiz	12-20	Mazpeltak
Rak. Osoa/Leizaola	Odoiz/Bermejo	02-20	21 talde txiki, 13 talde txiki
Rak. Osoa/Leizaola	Hernani Odoiz/Leizaola	12-21	21 talde txiki, 13 talde txiki
Rak. Osoa/Leizaola	Urola/Leizaola	02-18	
BASKETBOLA		EGUR PELOTA - TRAPUEKATU PRIVATUEK	
Rak. Osoa/Leizaola	Hernani Odoiz	12-20	Mazpeltak
Rak. Osoa/Leizaola	Odoiz/Bermejo	02-20	21 talde txiki, 13 talde txiki
Rak. Osoa/Leizaola	Hernani Odoiz/Leizaola	12-21	21 talde txiki, 13 talde txiki
Rak. Osoa/Leizaola	Urola/Leizaola	02-18	
BASKETBOLA		EGUR PELOTA - TRAPUEKATU PRIVATUEK	
Rak. Osoa/Leizaola	Hernani Odoiz	12-20	Mazpeltak
Rak. Osoa/Leizaola	Odoiz/Bermejo	02-20	21 talde txiki, 13 talde txiki
Rak. Osoa/Leizaola	Hernani Odoiz/Leizaola	12-21	21 talde txiki, 13 talde txiki
Rak. Osoa/Leizaola	Urola/Leizaola	02-18	

IRAGARKI MERKEAK

Etxeko lanak egingo nituzke, edota umeak zaindu. Pertsona arduratsua naiz eta esperientzia ere badaukat. Deitu: 669 741 596

Irigo Royo Masajista. Masajeta, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)